

'Le Monde', informazioan gudari

«LE MONDE», Paris-ko periodikua ospetsua, bete berriak ditu ortua izan zeneko ogeitab urte. Ain zuzen, 1969-XII-19-an, ospatu litu zillareku etaiki, Versaillesko Bilkura-Jauregian jaialdi bereal-ikoa emanaz.

Izazille eta gidari, H. Beuve-Mery zuten orain. Gaurdanik gidari-za, J. Fauvet-en eskutara igaro da. Maixuak jarraitzeile eta lankide onenari eskeini dio oraino berak, goratik, eranian duan albitalari zuzenaren zuzi argitua. Esku oentara pasa bide da; J. auvet es bai- ba bakarrik izparingir lanbidean ogi aditua, bai-zaik eta batipat, «LE MONDE»-k sortu al izan duan pentsaeran eta egitaranetan azi eta bi- zituia.

Izparingiri onek mundu izena eta fama. Zebakiak, egunero, 475.000 inguru banatzen bide ditu. Langilleak, periodikua bat sortzeko bear diren aibeste eratakoak, ez dira 900-dik urruti.

Goi-maillako idazleak ditu, edozein gaitan. Egikera trinkoa du, baiñan baita tajuzkoa ere. Funtestz aberats, aberatsik bada, politika, ekonomia, gizarte, erlijio, jankinta, literatura, antze-lan eta gaurko gizonak nai eta bear ditun arazo oroekiko argiemanetan.

Mundu guziko gobernariak irakurtzen omen dute eta aztertzen, egiazale eta egiazi bada, oiñarriak agiri eta jakinbide ziurretan erroz tatuaq ditaluako Gure Aita Santu, Paulo VI-ri, goizero maiean ipintzen omen diote. Paris-ko «Institut des Sciences Politiques» ikasguan, «LE MONDE» ezinbesteko albiste iturrizat daukate irakasleak eta orre- gatik egunero periodikua irakurri eta aztertzea aolkatzen omen di- tuzte ikasleak. «Le Monde»-rik ez baliz, sortu bearko omen litzake, zion idazle ezagun batek.

Irakurleak albiste zuzenen bidez ezitzea, izan zan Hubert Beuve- Merry, izazille eta gidariak, izparingiri ezarri zion egitekoa. Amañik amarru eta eraso bururkatu behar izan ditu, bere bideari, saldukeria- rik eta konpeonketarik gabe, libre eta jabe jarraiki al idazteko. Ez inor xistimaz kritikatu, ez etare itxuan babestu; ez erori ideolojiaren espa- rru itxian, are gutxiago talde ekonomikuen serbitzuan. Ikur au gora eta zintzo jaso eta gordetzen saia dalako, jasan bear izan ditu era gu- zietako erasoak. Ez da margorik egotzi ez diotenik; xurikeriei ez en- zuzn egiñaz eta ekaitz erasoetan irauten aleginduz, burutu al izan du Beuve-Mery-k 1944-gngo urtean bere buruari ezarri zion elburu eta xede noblea.

«Albiste garbi eta egiazkoak alik azkarren eta osoen irakurleei ematea», ara «Le Monde»-ren xedea. «Gure burubidea oten datza, dio Jean Schwobel idazleak: gure egitekoa erriari etenik gabeko egi- bidean laguntzea da. Etekin gabeko ezibidearen adar nagusienetakoa, alabañia, berriematea da, albistean bitartez errealdidearen moimen- duak eta indar eragileak jarraikiro azaltzen saiatuz». Paulo VI-k, be- rriz, onela osotuko du idea berbera: «Ez dago egiazko demokraziarik, erriekideak bidezko informazioz jakien gainean jarri gabe».

«Le Monde» bestealde izparingiri konpaina da. Lantegi erakunde aldei k ere bide berriak urratu ditu, guregungo arloei erantzun jato- rra asmatzen saiatuz. Periodikua langilleak, (idazle, enpleatu, kua- dru...) Lankide batzua osotzen dute izparingiarren bizitzan, denek par- te ar dezaten. Jabegoa, langille danena danez, lantegiaren araudia demokratikoa eta lana, izparingintza, alegia oren frutu jatorra bi- llskatzen bide da.

Euskal-errian asko gera «LE MONDE» irakurri eta maite dugonok. Bere orrialdetan aurkitu dugu, sarritan, gure ezibidean argia; jakin maiean bazka: nazioko eta nazioentarteko gorabera nagusietan azter- bidea; demokraziaren alde etsi gabe jarraituzkoak astu; gure albiste- laritza apalean aurerra egiteko oldarra.

Zorionak opa dizkitzugu zuri «Le Monde», guk euskal astekari apal onek, zuk aibeste aitatzen duzun Euskal-Erri- tik. «Munduan eman eta zabalduko duzula frutua», asiberri duzun bigarren aro onetan, badu- gu itxaropen.

IXO! AMONA LO DAGO-TA

Argentina'ko erri aundi baten izena Pehuajo da. Orain urte batzuek dala, gure erri- tik euskaldun asko alde aetara joan ziran. Beren ar- tean senar-emazte batzuek, seme- alabatxoekin ere bide ori eraman zuten. Ezin bada bakarrik etxean amona xarra utzi eta au ere urri- tiko toki aetara joan zan seme- alabak eta illoba txiki-ekin bat egin da.

Pehuajo inguruko erri- txo batean bi- zi ziran, eta amona xarra etxean beti egoten zan, bere illoba txi- kiak jostaten ziran bitartean. Ba- ñan oek batzutan ondo alkartzen ba ziran, besteetan beren artean asarretzen ziran esanaz: —Jostatu ori nere- da! — eta beste batek: —ez jauna, nere- da eta zuk auzi- ti didazu—. Eta orrela askotan zalaparta eta itxillua ugari egiten zuten, amonaxo gaxoa txoko bi- ldean eserita xil, ixillik zegoen bi- tar- tean. Alperrik ziran ama eta aitaren asarreak umexi ixillago itz egitea eskutzen ziotenean, amona gaxoa ez naigabetezko.

Eta orrela egun batean pakean eta beste- an asarreen artean egin beti ardallean zebiltzan.

Bitartean amona gaxotu eta oso zar- tu zan eta gutxi- ena ueste zute- nean, il egin zan: Bera orrela ikustean alaba eta suia negarrez asi ziran, asarreturik umexi esan- zuz: Ixo! Amona lo dago- ta!

Gaurko egunean Pehuajo'ko il- obi- tegian dabilzan euskaldunak, il- obi- baten aurrean dagoan arrian itz oek irakurtzen ditu: "Ixo! Amona lo dago- ta".

Eta euskaldun guziak aurretik igu- ruztean eta itz oek irakurtzen burua makurtu eta Agur Miren bat bederik amona xar arri eskei- n- tzen diote.

Emen ere gure edrialdean ume aen antzera beren arteko eztabaidan burrukan bezela dabilta utso- gatik, guziok alkartuta gure euske- ran alde egin bearrean.

Egia esatera, nere gogoa ez zan gai

onetaz eser esatea. Samiñez be- tetzen ninduen orrelako naspillak. Bañan burua etorri zait nere la- gun batek, aspaldi esan ziran ger- taera bat. Urnieta'ko errian apaiz jaun bizkor bat zuten, eta egun batean Emani'tik Urnieta'ra onez zijoala, basarritar bat aldame- n- ratu zitzaion esanaz: —Apaiz jau- na, etxe aldera? Orrela abitu gera beintzat, apaizak erantzun zion.

Eta apaizak galdetzen dio basarri- r- rari: Aurten beintzat, belarra ugari izango dezute—.

—Bai jauna—.

—Eta beik esnea ugari ematen al dizute?

—Bai jauna—.

Eta ontan, apaizak basarritarra ziri- katzeko asotan, gezurrezko gal- dera bat egin zion. Eta basarri- r- rari apaizari zion begirapen ez ukatzeko, esan zion: Ba... bai, jau- na.

Eta orduan apaizak asarreturik esan zion:

—Ez, jauna. Gizon dan gizonak, bear danean ez, jauna, esan bear dik.

Guk ere gaurko egunean, zorit- r- res, orrelako okerrak ikusten di- tugu, eta bein edo beste etorri zatekidanean galdezka, orrelako izki edo "letra" bat ipini bear da- la ala ez galdetzen digulenean, erantzuten degu Urnieta'ko apaiz jaunaren antzera: Ez, jauna. Ga- r- sia danean: Ez-jauna, esan bear dalako.

Bein batean bi artzai ardi- zaitz- zan zeudela, urrutira laisterka zijoan zakur bat ikusi omen zuten: —E- ri- bi- zakurre dek ori— esan zuan batek, eta besteak orduan, —ez motell, eper- zakurra dek.

Eta beren artean eztabaidan ari zi- ran bitartean, otso bat ardiarte- an sartu zitzaionen, batzuek il eta besteak zaurituz.

Guri ere ori bera gertatzen ari zaig- u, eztabaidan ari geran bitar- tean gure ama xarra, gure amona eusker, erri askotan ixiltzen ari zaigu, eta bestetan beriz, eta au- xen da txarrena, baita itzen erel

Bear ez dan eztabaida zalea ez naiz, eta gogora datorrigu beste gerta- era bat. Katolikoak gure erri- bu- r- r- ua Erroma degun bezela, arabi- r- r- ark Meka izena duena beren erri- buru dute. Eta zabaldua aoz- a esatera au erabiltzen da: —Bi- dean ateratzen zaizkan zakur zaunkalarai, arrika ematen gel- ditzen dan, beñere Meka'ra ez dala irixten—.

Guk ere bide bati bakarrik jarraitu bear diogu aldi txiki- ena ere galdu gabe. Norbaitek bidean arri- kox- korrak ipintzen ba dizkigu ere. utzi alde batera eta gogoratu de- z- zugun Pehuajo'ko il obi- tegian agertzen dana:

Ixo! Amona lo dago- ta.

LOPEZ-MENDIZABAL'DAR
IXAKA'K

ARABA EUSKALDUNAK

Hau erantzun dit lagun batek orain dala egun batzuk: «ya sabes que él es alavés, y que en Alava hace siglos que se ha perdido hasta el recuerdo del vasculence». Hau esan didana euskaltzale xamarra izanik, eta arabarra, zer pentsa?

Herrien oroimena laburra da, ba- tez ere bertakoen kondaira eginki- zuzn dagoenean.

Kardaberatz ernaniarraren lekuko- tasuna bururatu zait lehenik (ikus «Euskeraren Berri Onak», 73); Kar- daberatz'ek jakinarazten baitu Ara- ba'n «euskeraz itzegitea pekaruki aundiena balitz bezala, giza arte- tik kendu ta lurpean ondatu nai dute, ta eskoletan sortija edo señalearik, azote ta kastiguakin, eragotzi nai dute». Hau dala bide, Araba'ko «er- goien» euskaldunetan (herrixo txi- ki horiek «ergoienak» ziran araba- rren hizkuntzan) eraztunaren zigor- bidea erabili zan beraz, eta euske- ra garai hartantxe, XVIII-gn. mende- an alegia, eruz gaitzen ari zala idatzi zigun gipuzkoar josu-lagunak. Erdal- duntzea, beraz, ez zan gozo eta le- gunko obratu.

Landazuri arabarrak bere kondai- ran dionez Oka'ko Nanklares (Gaz- teiz'tik hegoaldean, beraz) euske- rari zan XVIII-gn. mendeko hasie- ran.

Aiala eta Okendo'ko haranetan, euskeraz ari ziran baserriarrik gehienak XIX-gn. mendean; eta azken euskaldunak XX-gn. mendeko hasie- ran sutsutsu ziran. Garai berean sutsutsu da gure hizkuntza, Bizkaia' ri dagokionez esate baterako, Bara- kaldo'n, Galdames'en eta Gueñes' en; hauegan jaiotako azken euskal- dun agureak gure mendeko hasieran hil baitziran.

Legutio'n (Villarreal) eta Ara- maio'n gaur bertan ere (bigarrenean batez ere) eusker da baserriarren hizkuntza.

Orain dala 90 urte Velasco'k ja- kinarazten zigunez, Zigoitia'n, Leza- ma'n Barbanio'n eta Laudio'n gehi- a guo ziran bertako euskaldunak, er- daldunak baino, nahiz gazteak erde- raz hasiak. Beste 13 herritan euskal- dunak ez ziran arnas itzali (hauen artean ondokoak: Amurrio, Asparre- na, Barrundia, Bebara, Ganboa, Okendo, Ubarrundia, Urkabustaiz, San Millan, Valdegobia bera...).

Bonaparte'k eraikitako mapak on- dorio beretara garamazki; eta leku- kotasan berbera eman zigun Azkue'k Araba'ko eusker auzertu zuelarik: Gipuzkoa'ko muga guzian topatu bai- tuzen euskaldunak. Bere aditzaren azterketa osatzeko, Elosu'n, Gantza- ga'n, Legutio'n, Olaeta'n, Urrunaga'n eta Zigoitia'n izan zituen laguntzaileak (1925-ean osatu zuen lana).

Gogoangarria da ere, honi buruz, Jose Migel Barandiaran' ek ezaguta- razi digun izkribua, 1787- ren ondoko- a dalako: «Hablan el idioma bascongado muchos pueblos de la Vicaría de Vitoria, todos los de Gamboa, los más de la de Salvatierra, los de Mondragón, Cigoitia, Zuya, Orduña, Ayala, Orozco y Tudela (de Alava), en los cuales a lo menos serían útiles los Curas de concurso abierto que ignorasen este idioma». Azkeneko bi mende hauegan aldatu da, beraz, Araba'ko hizkera; ez Harri-Aroan. Bi mende gehiegi da hein batean; eta oso gutxi ere beste ba- tean.

Tamala da, ordea, Kondaira-xe- h- tasun hauek baita geure artean ere honen harrigarri gertatzea.

LARRESORO

GAURKO EUSKAL-EMAKUMEAK BI EZ EMATEN DITU

A. AGIRRETXEK

Gure Euskalerriko inguru guzietan entzuten dana: Baserrietako maiorazgoak mutilizatzen ari zaizkigu, ezkontze esperantzarik gabe; neskatik ez dago base- rri- ra ezkondu nai duanik.

Eta, zoritxarrez, egi asko dago esan oietan. Alako erri artan irurogei mutilizat daukate eta neskazarrak ia baten ez. Aspalditxotik angoko neskatik kale-bidea artu zuten: lana, jolasa, lagunak ta dena kalean billatu nai- ar-ekin.

Zergatik eta nundik baserriaren ondamendi au dato- ren jakin eta pentsatu egin bear genduke.

Baserriko mutilaren kultura edo jakituria eskaxa da- lako ote da? Ez orixe. Kaleko beste mutilak aña badira baserriko maiorazgo oietatik asko. Gañera, dudarik ga- be, maiorazgo orrekin ezkonduko liraken neskatik ba- d- ira, ezkontza ori bera kalera egingo balitz.

Baserrira urrutu edo mendian dagokian ote da? Ezta. Zenbait baserri- tan kamioa ta automobilta ta etxe ingu- ru ederra badituzte. Alaz gutzi- z ere, maiorazgoa ...baka- rrik.

Baserriaren egin bear dan eskulanagatik ote da? Ezta ori ere. Kalean diran lan asko ez dira txukunagoak, ez ariñagoak ta ez ederragoak. Gogoratu gotzoko sei- retan sortzen diran errebagoak eta zenbait fabriketan egin bear izaten diran lan askoren zikifia, usaia eta asperga- rritasuna.

Gure gaurko emakumeak baserriari dion maitasun- eza beste nunbait billatu bear dala, uste degu.

1. Begira, lenegotik, baserri- ra dionaren adrearen bakardadea. Lagunarte aundian oituko neskatik ino- laz ere maite ezin duan bakardadea. Nola edo alo arin- du bear litzaken bakardade izugarria. Baserriko andre- an onerarekin bat-egiañ ikusi nai gibilitzake bai etxeko arazoetan ta bai etxetik kanpoko inbillaldietan. Bat egi- nago baita ere auzoko beste etxekoandreekin.

2. Nekazari-errietan baserriko etxekoandreak, errial- deko goraberak zuzendu-bear ontan, sartuago ta esku- bidetsuago ikusi bear genituzke. Ez dira neska- me ba-

tzuk. Eta erri artan sortzen diran zenbait problema ema- kume auen iriziti ta alkarteko jardunarekin konpondu bear dira. Zergatik gure erriak aibeste zokoratu dituzte beren etxekoandreak? Auen alkartasunak sortu bear di- ra eta zor zaie malla ta gizar- teko influentzia kendu egin diegu, bai, ta len bait- len ori dena itzuli egin bear zaie.

3. Kaleko bizimodu ta lanarekin baño egokiago osotu leike emakumea, baserri- an ondo erartutako lana- rekin. Ez lan gogorregirik, ez lan desegokirik emakume- arentzat. Baserriko andreak bere burua ta adimena azie- razteko millaka okasio ditu bere etxe inguruan; pentsa- tu aundietan ibiltzeko astia ta gauzak daramazki be- re bizitzan; etxe ta etxe-inguruko baratz, atari, lore, su- kalde, animalitxo ta bizi-erakertak millaka iniazitibaz abe- rastu lezaiokeite trudimena.

Orretzaz gañera, lan ezberdin askotan jokatu bear izaten dualako, bere personatuna osotzeko bide txit egokian dagola baserriko etxekoandrea, ezin ukatu. Men- diak, loreak, lurrarekiko artu-emanak, izadi garbiarekin tratu bearark... emakume ori kultura bereki bat eman egingo diote.

Baña, ortarako, prestaera aundi bat bear. Gorputzez, buruz eta espiritu- z baserriko bizitza era-berritu batekin gure emakumeak gustatu ditezten.

Prestaera oni nork emango? Baserritik kanpo bizi ge- ranok, ezin. Baserri- an bokazio on eta atsegingarri bat arkitu duten oietek —ta obe eurak ere emakumeak bal- din badira— egin bearko lutekan lana da ori. Guri ez li- gukete sinistuko. Emen ere bizitzazko testimonio bat bear. Eta badira gure artean batzuen batzuk.

Eta asiko al gera gure gaurko euskal-emakumeak dio- ten bigarren EZ ori aitatzen? Monjatzari EZ, alegia, Luzegi joango litzake gaur. Eta arazo ori urengon GOIZ ARGi-rako utzi egingo degu.

(«Goiz Argi»tik jasoa)

Zeruko Argia

ZERUKO ARGIA

Zuzendaria:
MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA

Naparroko-Kantauriko ta Ara- goiko Kapuzinoak argitaratua (Carlos III, 22. Pamplona)

DONOSTIA'N:

Oquendo, 22 Telf. 26666

ARRIPE SARIA:

Barruan 215 pezeta

Korreo batasun- n- etako errietan. 265

Atzerietako bes- te errietan 285

Aidez Aurrez galdetu.

Salmentan (Ale bakoitza) 5 pezeta